

#EtxebizHitza Twitter lehiaketa

Oinarriak

- 1- **HELBURUA:** Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari (EGK) ideiak eta proposamenak ematea etxebizitza merkatuari buruz. Egun gazteok emantzipatzerakoan ditugun arazoak ikusita, batz bestea 30 urte arte ez gaita emantzipatzen, EGKren diskurtsoa osatu nahi da lehiaketa honen bitartez. Era berean, asmoa gaia gizarteratzea da, eztabaida mahai-gainean jartzea eta gazteon ideia, proposamen, kexa eta aldarrikapenak biltzea.

- 2- **BALDINTZAK:** Lehiaketan parte hartzeko **18 eta 30 urte arteko gaztea** izan behar duzu (ezingo da erakunde edo eragile baten izenean parte-hartu) eta **EAEkoa izan edo bertan bizi**. Horretaz gain, Twitter kontua irekia izan behar da (txioak edonork ikusi ahal izateko). Azkenik, txioak honako ezaugarriak bete beharko ditu lehiaketan kontuan izateko:
 - a. Txioak **#EtxebizHitza traola** izan behar du.
 - b. Parte-hartzaileak **@GazteKontseilua Twitter kontuaren jarraitzailea izan** behar du edo kontua jarraitzen hasi behar da.
 - c. Txioak aipamena egin behar dio **@GazteKontseilua** Twitter kontuari.
 - d. Txioa jartzen duen pertsonak, **horrelako galderei erantzun behar die:**
 - i. Zein da arazo nagusia emantzipatzeko?
 - ii. Zein dira egunerokoan topatzen dituzun oztopoak?
 - iii. Egungo etxebizitza-merkatua erregulatu beharko litzatekeela uste duzu?
 - iv. Nola baloratzen duzu Eusko Jaurlaritzak garatutako #Gaztelagun programa? Zer falta zaio? Nola osatuko zenuke?
 - v. Gainerako administrazioek garatutako etxebizitza-programak ezagutzen dituzu?
 - vi. Etxebizitza eskubidea subjektiboa izan beharko zela uste duzu?
 - vii. Zer egin beharko litzateke etxebizitza hutsekin?
 - viii. Administrazioek alokairuko merkatu librean esku hartu beharko luketela uste duzu?
 - ix. Alokairuaren zati bat finantzatzea politika eraginkorra da emantzipazioa bultzatzeko? Beste zein neurri hartuko zenituzke?
 - x. Zer eskatzen diezu administrazioei? Zein neurri hartu beharko lituzkete?
 - xi. Zer eskatu edo aldarrikatu beharko genuke erakundeekin biltzen garenean?
 - xii. Eta bururatzen zaizun beste edozer!
 - e. Txioa euskaraz zein gaztelaniaz (ala bietan) izan daiteke.
 - f. EGK-ko lantaldeko kideak eta Batzorde Iraunkorreko kideak zozketatik at geratuko dira.

3- SARIAK

- 1go saria: Bi pertsonentzako gaua Zumeltzegi Dorrean (Oñati).
2. saria: Parapentean hegaldia bi pertsonentzako (Sopela).
3. saria: Gatz Haranera eta iturburuetara bisita (Añana).

- 4- **EPEA:** Lehiaketa **maiatzaren 2tik 30era arte** (goizeko 11ak arte) **bidalitako txioen artean** egingo da.
- 5- **ERABAKIA:** Saria emateko, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) zozketa egingo du lehiaketaren parte-hartzaile guztien artean, betiere **2. ataleko baldintzak** betetzen badituzte. Txio bakarra ala txio bat baino gehiago jarri, pertsona bakoitzak zenbaki bakarra izango du zozketan. Hau da, saria irabazteko aukera bera dago txio bat ala txio bat baino gehiago bidalita.
- 6- **ZOZKETA:** Maiatzaren 30ean (asteazkena) eguerdiko 11.30ean egingo da, Donostiako EGK-ko egoitzan ([Andia kalea, 11](#)) modu publikoan, hau da, edonor bertara daiteke zozketa ikustera. Hiru irabazle egongo dira eta hiru ordezko.
- 7- **JAKINARAZPENAK:** Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) maiatzaren 30ean bertan jakinaraziko ditu saridunak. Batetik, Twitter sare sozialean mezu publiko bitartez, eta, bestetik, saritu bakoitzari mezu pribatu bitartez. Sarituek ekainaren 1eko eguerdia (12:00) baino lehen erantzuten ez badute, saria zozketan ordezko gisa geratu diren pertsonen egokituko zaie. Ordezkoek ekainaren 4ko eguerdia (12:00) baino lehen erantzuten ez badute, saria eman gabe geratuko da.
- 8- **SARIA EMATEKO:** Saria jasotzeko, sarituak gertuen duen Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) egoitzara joan beharko du ([Bilbo](#), [Gasteiz](#) edo [Donostia](#)), bertako langileekin adostutako ordu batean. NANA eskuan eraman beharko dute eta, Twitterreko izena izengoiti bat bada, kontua haiena dela frogatu beharko dute. Bestalde, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) argazkia egingo die sare sozialetan sariaren berri emateko.
- 9- **ONESPENA:** Zozketa honetan parte hartzeak lehiaketaren eta zozketaren oinarriekin bat egitea suposatzen du.
- 10- **ARDURA:** Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) jasotako txioen edukiaren gaineko edozein ardura ukatzen du, baita parte-hartzaileen jokabidearen gaineko ardura oro ere.

twitter.com/GazteKontseilua